


## Euskal AEko lanbide eta enpresa zerbitzuen %94 10 langile baino gutxiagokoak ziren eta guztiaren %44 fakturatu zuten 2012an

**Jarduera juridikoek eta kontabilitatekoek sektorearen enpleguaren %20 hartu eta guztiaren %29 fakturatu zuten**

Euskal AEko lanbide eta enpresa zerbitzuen sektorea (jarduera profesional eta zientifikoak, zerbitzu laguntzaileak) oso atomizatua da, enpresen %94,3k 10 langile baino gutxiago zituzten 2012an, Eustaten arabera. Enpresa hauek sektoreko langileen %37,2 okupatu eta negozio-zifraren %43,7 izan ziren.

100 langile eta gehiagokoak guztien %0,5 besterik ez ziren, langileen %30 pasatxo eta 2012ko fakturazioaren %20,2.

**Grafikoan. Euskal AEko lanbide eta enpresa jardueren establezimendu-kopurua, langile okupatuak eta negozio-zifra, enplegu-geruzaren arabera. 2012**



Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika

2012an sektorean 116.984 langile ari ziren, 27.879 establezimendutan.

Sektoreko establezimenduetan enplegatutako batez besteko pertsona-kopurua, 4,2; Jarduera juridiko eta kontabilitatekoetan, 2,3; enpleguarekin lotutakoetan, 31,1; ikerkuntza eta garapenean, 17,9. Gainerako jardueretan hiru bat langile izaten dira batez beste: Publizitatea eta merkatu-azterketetan, 3,3; Alokairu zerbitzuetan, 3,1; Arkitektura eta ingeniartzan, 2,9; Bidaia-agentzietan, 2,7.

Negozio-zifra: 8.514 milioi; pertsona okupatuko 72.782 euro.

## 1. taula: Lanbide eta Enpresa zerbitzuen sektorearen aldagai nagusiak lurraldearen arabera (milaka euro). 2012

|                             | Euskal AE | Araba/Álava | Bizkaia   | Gipuzkoa  |
|-----------------------------|-----------|-------------|-----------|-----------|
| Langile okupatuak (kopurua) | 116.984   | 15.844      | 68.567    | 32.573    |
| Negozio-zifraren zenbatekoa | 8.514.321 | 1.115.370   | 5.175.439 | 2.223.512 |
| Hornidurak                  | 2.069.107 | 286.951     | 1.253.407 | 528.749   |
| Kanpo-zerbitzuak            | 2.070.163 | 258.451     | 1.227.578 | 584.134   |
| BEG faktoreen kostuan       | 4.952.419 | 637.840     | 2.985.308 | 1.329.271 |
| Langile gastuak             | 3.465.135 | 456.571     | 2.072.488 | 936.076   |

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika**

**Jarduera-azpisektoreak:** Jarduera profesional eta zientifikoak fakturazioaren %66,3 izan ziren. Gainerako %33,7, zerbitzu laguntzaileak.

Jarduera profesional eta zientifikoak atalaren barruan, Jarduera juridiko eta kontabilitatekoak %43,4; Arkitektura eta ingeniari-tza, %33,9. Ikerkuntza eta garapena, %8,5; Publizitatea eta merkatu-azterketak, %7,6; Beste jarduerak profesionalak, %6,6.

Zerbitzu laguntzaileetan: Negozio-zifraren %21,5, Bidaia-agentziek; Alokairu-zerbitzuek %14,6; Enpleguarekin lotutako jarduerak %6,7; Zerbitzuen beste jarduerak, %57,1.

Jarduera juridikoek 23.389 pertsona okupatzen zituzten, sektorearen enpleguaren %20; 10.325 establezimendutan, denen %37. Talde honetan pertsonako salmentak: 104.831 euro.

Arkitektura eta ingeniari-tza zerbitzuek 17.598 pertsona okupatu zituzten, sektorearen enpleguaren %15; 6.000 establezimendu, guztien %21,5. Talde honetan pertsonako negozio-zifra: 108.599 euro.

Ikerkuntza eta garapenean 7.127 langile enplegatu ziren, denen %6,1; 399 establezimendutan, denen %1,4; pertsonako batez besteko fakturazioa, 67.312 euro.

Publizitate eta merkatu-azterketetan 4.408 pertsona ari ziren, 1.345 establezimendutan, pertsonako batez besteko fakturazioa 97.140 euro.

**2. taula: Lanbide eta Enpresa zerbitzuen sektorearen aldagai nagusiak jardura azpisektorearen arabera (milaka euro). 2012**

|                                          | Langile okupatuak |      | Negozio-zifraren zenbatekoa |      | Hornidurak |      | Kanpo-zerbitzuak |      | BEG faktoreen kostuan |      | Langile gastuak |      |
|------------------------------------------|-------------------|------|-----------------------------|------|------------|------|------------------|------|-----------------------|------|-----------------|------|
|                                          | Balioa            | %    | Balioa                      | %    | Balioa     | %    | Balioa           | %    | Balioa                | %    | Balioa          | %    |
| <b>TOTAL</b>                             | 116.984           | 100  | 8.514.321                   | 100  | 2.069.107  | 100  | 2.070.163        | 100  | 4.952.419             | 100  | 3.465.135       | 100  |
| Jardura juridiko eta kontabilitatekoak   | 23.389            | 20,0 | 2.451.886                   | 28,8 | 249.183    | 12,0 | 814.887          | 39,4 | 1.522.434             | 30,7 | 820.671         | 23,7 |
| Arkitektura eta ingeniartzako zerbitzuak | 17.598            | 15,0 | 1.911.122                   | 22,4 | 668.543    | 32,3 | 433.510          | 20,9 | 912.153               | 18,4 | 622.015         | 18,0 |
| Ikerketa eta Garapena                    | 7.127             | 6,1  | 479.730                     | 5,6  | 74.982     | 3,6  | 160.283          | 7,7  | 435.467               | 8,8  | 332.687         | 9,6  |
| Publizitatea eta merkatu azterlanak      | 4.408             | 3,8  | 428.194                     | 5,0  | 149.071    | 7,2  | 99.666           | 4,8  | 187.522               | 3,8  | 142.863         | 4,1  |
| Beste jardura profesional                | 5.655             | 4,8  | 372.422                     | 4,4  | 116.897    | 5,6  | 81.168           | 3,9  | 186.287               | 3,8  | 111.897         | 3,2  |
| Alokairu jarduerak                       | 2.808             | 2,4  | 419.566                     | 4,9  | 113.456    | 5,5  | 131.493          | 6,4  | 176.768               | 3,6  | 91.773          | 2,6  |
| Enpleguarekin uztartutako jarduerak      | 6.694             | 5,7  | 192.427                     | 2,3  | 2.079      | 0,1  | 21.153           | 1,0  | 171.591               | 3,5  | 167.973         | 4,8  |
| Bidai-agentziak                          | 1.982             | 1,7  | 618.546                     | 7,3  | 502.951    | 24,3 | 73.057           | 3,5  | 65.938                | 1,3  | 63.245          | 1,8  |
| Bestelako zerbitzu-jarduerak             | 47.323            | 40,5 | 1.640.428                   | 19,3 | 191.945    | 9,3  | 254.946          | 12,3 | 1.294.259             | 26,1 | 1.112.011       | 32,1 |

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen estatistika**

Enpleguarekin lotutako jardueretan, 6.694 langile, 215 establezimendu. Alokairu-jardueretan 2.808 langile 905 establezimendutan eta 742 bidai-agentzietan 1.982 pertsona. Gainerako 52.978 enpleguak, 7.948 establezimendutan, Beste jardura profesional eta zerbitzuak.

Pertsonal-gastuak: 3.465 milioi; %23,7 jardura juridiko eta kontabilitatekoetan eta %18 arkitektura eta ingeniartzako zerbitzuak.

Bizkaia Jardura profesional eta enpresakoen negozio-zifraren %60,8 izan zen; Gipuzkoa %26,1, Araba %13,1. Lurraldeetako portzentajeak azpisektoreetan oso antzekoak dira: Bizkaian %59,7 Jardura profesionaletan eta %62,9 Zerbitzu laguntzaileetan; Gipuzkoan %26,8 eta %24,7; Araban %13,5 eta %12,4.

Enplegatutako langileen %58,6 Bizkaian aritu zen, %27,8 Gipuzkoan, %13,5 Araban.

Jardura profesional eta zientifikoen enpleguaren %13,6 Araban genuen, %55,4 Bizkaian, %31 Gipuzkoan. Zerbitzu laguntzaileetan, enplegu okupatuaren %13,5 Arabari zegokion, %61,8 Bizkaiari, %24,7 Gipuzkoari.

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

Zerbitzuen estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago